

Prentsa oharra

Nota de prensa



Donostiak programa zabala izango du Europako Mugikortasun Asterako

Jarduerak irailaren 15etik 22ra bitartean egingo dira, eta astea ohiko Bizikletadarekin amaituko da

Donostiako Udalak, hainbat kolektiborekin batera, programa zabal eta askotarikoa antolatu du Europako Mugikortasun Asterako, irailaren 15etik 22ra bitartean hiriko hainbat tokitan egingo dena.

Olatz Yarza Mugikortasun zinegotziak adierazi duenez, "jarduera guztiak bat datoz Donostiako Udalak mugikortasun paradigma jasangarriago, osasungarriago eta seguruago baterantz jotzeko hartu duen konpromisoarekin, oinezkoak erdigunean jartzen duena".

"Konbinatu eta Mugitu zaituz!" lelopean, urteko hitzordu honen gai nagusia efizientzia energetikoa da, eta horren inguruan Mugikortasun Sailak koordinatutako hamar bat ekimen egingo dira, herritarren artean garraio jasangarria bultzatu eta sustatzeko helburuarekin.

Mugikortasunari aplikatutako teknologia berrien erabilera, oinezkoentzako espazio publikoaren aldarrikapena edo kolektibo ahulenen inguruko kontzientziazioa izango dira programazioaren ardatzetako batzuk. Programazioak jarduera berritzaileak eta ohikoak bilduko ditu, hala nola, astea itxiko duen ospe handiko Bizikletada.

Gustu guztietarako jarduerak

Horrela, Donostiako Mugikortasun Astea gaur bertan, irailak 15, hasiko da **Parking Day** ekimenarekin, ibilgailu pribatuentzako lekua murriztuz eta pertsonentzako espazio publiko gehiago eskatzen duen mundu mailako korronteararekin bat eginik. Jardunaldian zehar, erakunde desberdinek jarduerak egingo dituzte hainbat auzotako aparkalekuetan; horien artean, hiriko ingurumen-ekintzei buruzko informazioaren zabalkundea edota Musika eta Dantza Eskolaren kontzertu bat.

Larunbatean, hilak 16, **Cargo Bikes** edo zama bizikletak izeneko txanda izango da. 10:00etatik 13:00etara, Kalapie elkarteak stand bat jarriko du Sagueseko zabalgunean, herritarrek mota horretako 7 bizikleta probatzeko aukera izan dezaten. Horren guztiaren helburua da bizikleta horiek ezagutzea eta hirian mugitzeko aukera eroso, jasangarria eta baliozkoa dela egiaztatzea. Eta igandean, 10:00etan, Kalapieren eskutik ere, bizikleta irteera bat egingo da **"Eman pausua eta pasa bizikletara!"** lelopean, garraibide honekiko konfiantza sendotzeko. Irteera honetan, aholkuak eta informazioa eskainiko da, eta bertan parte hartzeko izena eman beharko da www.cristinaenea.eus webgunearen bidez.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Asteartean, Mugikortasun Sailak diseinatutako **Eskola Mugikortasun Plana** aurkeztuko zaie hiriko ikastetxeei. Dokumentua gida gisa erabil dezakete, beren ekintza planak ezartzeko, eta haurrak eskolara egunero joateko mugikortasun baldintzak hobetzea du helburu. Aurkezpena 10:00etan egingo da udaletxean.

Asteazkenean, hilak 20, UPV-EHUK Donostiako **hiri espazioei eta emakumeen mugikortasunari** buruzko azterlan bat abian jarriko dela aurkeztuko du. Irailean eta urrian zehar egingo den Carlota Jauregi doktoregaiak gidatutako azterketa hori egiteko, aplikazio mugikor bat diseinatu da. Aplikazio horren bidez, nahi duten emakumeek parte hartu ahal izango dute, beren pertzepzioen berri emanez igarotzen diren hirietako lekuetan, eta *in situ* baloratuz ikusten dituzten parametroek segurtasuna transmititzen ote dieten. Aurkezpena 10:30ean izango da UPV-EHUren Ibaetako campusean eta 17:30ean Okendo kaleko Emakumeen Etxean.

Ostegunean, **aniztasun funtzionala** duten pertsonen mugikortasunera zuzendutako jardueren txanda izango da, itsuka mugitzeko zirkuitu batekin eta errealitate birtualeko betaurrekoekin, ONCE eta Begisare erakundeek antolatuta. Horrela, 11:00etatik aurrera, Artzain Onaren eta Alderdi Ederren inguruan, bi gune prestatuko dira kolektibo horien errealitatea esperimintatzeko, eguneroko bizitzan dituzten tresnak, eta hirian zehar mugitzeko dituzten zailtasunak ezagutzeko.

Asteazkenean, **Dbusek** bere markesinen Navilens teknologiari esker funtzionalitate berria aurkeztuko du. Horri esker, denbora errealean autobu -lineen ordutegiari eta ibilbideei buruzko informazio egokituia lor daiteke. Gainera, konpainiak QR kode bidezko ordainketa sistema berritzaile bat aurkeztuko du, garraio publikoaren erabilera errazteko eta sustatzeko.

Eta ostiralean, hilak 22, amaiera emango zaio asteari ohiko Bizikletadarekin, Donostiako Mugikortasun Astearen edizio bakoitzean parte hartzaile gehien biltzen dituen ekintzarekin. 11:00etatik aurrera, hainbat ikastetxetako ehunka ikasle Alderdi Ederretik abiatuko dira hirian zehar ia 10 km-ko ibilbidea egiteko. Bertan, eskola ibilbideak egiteko bizikletak duen garrantzia aldarrikatuko da.

Dbizi txapelketa

Programatutako jardueraz gain, bizikletaren erabilera eta garraio publikoa sustatzeko helburuarekin, Dbizik txapelketa bat jarriko du martxan, eta aste honetan bizikleta publikoak gehien erabiltzen dituzten 5 erabiltzaileek urteko abonua doakoa irabaziko dute.

Europako Mugikortasun Astea

Mugikortasun Astea da Europako Batzordeak hiri mugikortasun jasangarriari buruz egiten duen sentsibilizazio kanpaina nagusia, eta helburu bikoitza du: batetik, Europako tokiko agintariak garraio jasangarriaren aldeko neurriak sustatzera

Prentsa oharra

Nota de prensa



animatzea, eta bestetik, herritarrek ibilgailu pribatuaren aukerak probatzera animatzea, garraio publikoa eta beste garraio aukera garbi eta adimendun batzuk erabiliz.

Donostia, 2023ko irailaren 15a